

{ analisia } **Isidro ESNAOLA**

Inflazioa, eskuliburu zaharkituaren odolustea

Litekeena da aurten inflazioarena fenomenorik aipagarriena izatea. Nahiz eta egia izan hileko igoera handienak iazko azken hilabeteetan izan zirela eta aurten neurritsua-goak izan direla, prezio oso altuetan eman direlako, bizitzaren kostuaren igoeraren sentsazioa gero eta larriagoa da. Gainera, gehien igotzen diren produktuen artean eguneroko aurrekontuan pisu handia duten elikagaiak daude, batez ere diru-sarrera gutxien dituzten pertsonen kasuan.

Inflazioari emandako erantzunak bi bide jarraitu ditu. Alde batetik, hainbat herrialde-tako gobernuek neurriak hartu dituzte prezioen igoeraren ondorioak arintzeko. Horien artean denetarik egon da: neurri administratiboak, erregulazioaren aldaketak, tasen eta zergen murrizketak, laguntza zuzenak eta abar. Neurri bat aipatzearen, erregai litro bakoitzeko 20 zentimoko laguntza izan zen horietako bat. Neurri mugatuak izan dira, gehienak kendu dituzte dagoeneko, baina nahiko eraginkorrak izan dira prezioen igoerari aurre egiteko eta, batez ere, familien aurrekontuen gaineko eraginak mugatzeko.

Estrategia okerra

Bestalde, ohiko neurri makroekonomikoak egon dira.

Aurtengo fenomeno aipagarriena izan da inflazioa. Bizitzaren kostua gero eta garestiagoa delako sentsazioa etengabea izan da urte guztian, eta, berriro ere, gutxien daukatenak izan dira kolpatuenak. Europako Banku Zentralak eskuliburua baliatu du eta interes-tasak igo ditu, pazienteari odola aterata gaixotasuna ahulduko duelakoan. Arazoa da pazientea ari dela odolusten.

Europako Banku Zentralak interes-tasak igotzeko erabakia hartu zuen. Banku zentralak eskuliburutik tira egin du, eta EBZko zuzendaritzak 2022ko uztailean erabaki zuen interes-tasak igotzen hastea, eta aurtengo irailean onartutako azken igoerara arte jarraitu du tasak igotzen; urtebete pasatxoan hutsetik %4,5era igo da. Arrazoiketa erraza da: interes-

tasak igotzen badira, kreditua garestitu egingo da, inbertsioa eta kontsumoa moteldu egingo dira eta prezioak jaisten hasiko dira, jendeak gutxiago gastatuko duelako. Horrela, %2ko inflazio-helburu magikora iristea pentsatu zuten. Igoera gorabehera, prezioen erreakzioa oso txikia izan da. Halere, harrigarriena ez da hori izan. Philip R. Lane EBZko

batzorde betearazleko kideak martxoan adierazi zuen, bankuak erabiltzen zituen eredu matematikoen arabera, tasen igoerak eragin txikia izango zuela inflazioan eta eragin handia ekonomian. Eredu horien arabera, interes-tasak %1 igotzeak ozta-ozta balioko luke inflazioa %0,3ra jaisteko, eta, halere, produkzioaren jaitziera %1ekoa izango litzateke. Orduan, jadanik interes-tasak %3an zeuden eta %4,5eraino igo dira, jakinda horrek ez zuela askorik lagunduko. EBZko buruzagiek maiz errepikatu dute badakitela interes-tasak igotzeko erabakiak geldialdia eragingo duela ekonomian, eta horrek langabezia areagotuko duela. Hala eta guztiz ere, krisi baten aurrean sorgor jarraitu dute, eta galga garaiz zapaltzeko gai izango direlakoan daude. EBZren sendabideak iraganezko *matasanoena* gogorarazten du, orduan gaixoak odolusten zituzten, pazienteari odola ateratzean gaixotasuna ahuldu egingo zela pentsatuz. Izan ere, gaixotasuna ahuldu egiten zen, baina baita pazientea ere, eta, beraz, hiltzeko probabilitatea esponenzialki biderkatzen zen. Gaixotasunarekin amaitzeko pazientea hiltzeak ez dirudi estrategia egokia denik. Ez da soilik eredu ekonometrikoez porrota iragartzen zutela; Christine Lagarde EBZko

presidenteak aurten eman dituen ia hitzaldi guztietan adierazi du inflazioaren izaera batez ere politikoa dela, eta tentsio geopolitikoekin duela zerikusia. «Ezgonkortasun iraunkorra» bezala definitu zuen Lagardek egungo unea. Inflazioaren helburua %2 zela errepikatu zuen behin eta berriz, ekonomiari erreferentzia bat emateko, baina jakin badaki hornidura-kateko edozein desorekak edo edozein merkantziaren defizitak prezioak asko igo ditzakeela berriro.

Eskuliburua zahar geratu bada ere, Europako Banku Zentralak harekin jarraitu du. EBZk eragin handia izan duen beste alderdi bat izan da soldatak direla prezioen igoera ez gelditzearen errudunak. EBZren arabera, soldatak dira etorkizunean inflazio-espiral bat elikatzearen arrisku nagusia. Errealitatean, oro har, soldatak inflazioa baino askoz gutxiago igo dira. Ez du axola errealitateak iragarpenei laguntzen ez badie, beren diskurtsoarekin jarraitu dute, beren ikuspegiaren izaera ideologiko hutsa agerian utziz. Arazoa da ikuspegi horrekin enpresa-irabazien erantzukizuna ez-kutatzen ari direla inflazioaren igoeran. Isabella Weber ekonomialari alemaniarra izan zen enpresen merkatubotereari, hau da, prezioetan eragiteko enpresek duten

gaitasunari, erreparatu zion lehenengoetako bat. Lehen aldiz, *establishment* akademiakoak mespretxatu zuen, baina, azkenean, arrazoiak eman behar izan diote: ez dira soldatak prezioetatik tira egiten ari direnak, enpresa-mozkinak baizik.

Desberdintasunak

EBZk tasak igotzeko hartutako erabakiak eragin handia du desberdintasunean. Errentariak dira interesen igoeraz onura gehien ateratzen dutenak: gehiago kobratzen dute beren maileguengatik. Baina ez dute gehiago kobratu soilik egiten. Inflazioaren ondorioz, beren aktiboek (etxebizitzak, lursailak edo akzioak), edozein direla ere, balioa galtzen dute; hala ere, galera hori partzialki konpentsatu dezakete, gutxienez, interesengatik dituzten diru-sarrera handiagoe-kin. Eta interes handiagoak hipotekadun familiek, zorrak

Oinarrizko elikagaien garestitzea etengabe gertatu da urte osoan zehar, etxe askotara estuasun larria ekarriz. Endika PORTILLO | FOKU



dituztenek edo finantza-gastuak biderkatzen ikusten dituzten enpresa txiki etaertainek ordaintzen dituzte, beren inbertsioen balioa, etxe bat izan edo makina bat izan, galtzen ari den artean.

Korporazio handiei, ordea, inflazioak ez die apenas eragiten, batez ere ia ekoizpen-jarduerarik ez dutelako –ia guztia azpikontratatzendute–; enpresa handiek batez ere finantza-trafikoan jarduten dute: obligazioen jaulkipena, akzioen eta ondarearen salerosketa, patente eta esku-bideen espekulazioa, etab. Egia esan, korporazio handiek antz handiagoa dute banku batekin industria-enpresa batekin baino, eta tasa altuekin orokorrean askoz diru gehiago irabazten dute.

AEBetan eta European interes-tasen igoerak dolarra- ren eta euroaren balioa handitzea ekarri du. Izan ere, mundu guztiak jarri nahi du bere dirua interes gehien ordaintzen duten lekuetan, eta

horrek dolarra- ren eta euroa- ren gaineko eskaerak handitzea ekarri du; hortaz, kotizazioak gora egin du. Igoera horrek egoera larrian utzi ditu hegoalde globaleko herrialdeak, batez ere, zor handia dutenak.

Bestalde, nazioarteko merkatuetan prezio gehienak dolarretan negoziatzen direnez, dolarra- ren errebalorizazioak gutxi eragiten die estatubatuarrei, dolarretan ordaintzen jarraitzen baitute. Kontrakoa gertatzen zaie produktu asko inportatzen dituzten herrialdeei: inportazioak pagatzeko dolarrak garestiago ordaindu behar dituzte. Horrela, interes handiagoak ordaintzeaz gain, inportazio garestiagoak ordaindu behar izaten dituzten. Interes-tasen igoerak hegoaldeko herrialdeen ekonomia birrindu du.

Egungo inflazioaren arrazoi- en azterketa argirik egin gabe, biztanleriaren pobretzea ezkutatzeko diskurtso ideologikoarekin apainduta, litekeena da prezioek igo- tzen jarraitzea. Urte amaiera honetan hasi dira esaten las- ter hasiko direla interes-ta- sak jaisten, jendea animatu nahian edo. Itxura guztiaren arabera, luzaro altuak izaten jarraituko dute, krisia eta langabezia agertu arte. Mo- du batean edo bestean, au- rreikuspen txarra herritar xumeentzat.